

GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUBIDE DESBERDINEN ARTEAN
KUOTAK BATERA ZENBATZEA

Araudia: apirilaren 12ko 691/1991 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren araubideen artean kuotak batera zenbatzeari buruzkoa (1991/1/5 Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Gizarte Segurantzaren sistemaren araubideren bati kotizazioak egiaztaturik dituzten Estatuaren Klase Pasiboen Araubidean afiliaturiko funtzionarioek kuotak batera zenbatzea eskatzen ahalko dute, bai pentsio eskubidea jasotzeko zenbatu ahal izateko bai berau kalkulatzeko aplikatu beharreko ehunekoa zehazteko.

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrari afiliatutako langileen kasuan, Estatuaren Klase Pasiboen Araubideari kotizatu ziren zerbitzuak eman bazituen eta kuotak batera zenbatzea nahi badu, Nominen eta Aurrekontu-kontrolaren Zerbitzuari ziurtagiria eskatu beharko dio. Ziurtagiri hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean aurkeztu beharko du bere erretiroa tramitatzekoan.

Azken kotizazioak egin dituen araubidearen organo edo entitate kudeatzaileak onartzen du pentsioa, beren berezko arauk aplikatuta, baina epeak guztira kontuan izanda, salbu araubide horretan pentsioa eskuratzeko baldintzak betetzen ez baditu,, kasu horretan beste araubideak ebatziko du .

Pentsioa aitortzea Klase Pasiboen Araubideari dagokionean, guztira kontuan hartuko diren epeak, beste araubide batean egiaztatutak, hurrengo **baliokidetasun taula** aplikatzearen ondorio diren talde edo kategorietan emanak direla ulertuko da:

Gizarten Segurantza	Klase Pasiboen Araubidean
1 (1. taldea + autonomo lizentziadunak eta ingeniariak)	A1
2 (2. taldea + autonomo ingeniari teknikoak eta perituak)	A2
3 (3., 4. , 5., 8. taldeak eta autonomoak orokorrean)	C1
4 (7. eta 9. taldeak)	C2
5 (6., 10. ,11. , 12. eta etxeko enplegatuak)	E/Lanbide erakundeak